

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 206. alea - 2016ko apirila



**ESTI BERISTAIN,  
moda joera berrietan  
jantzia**



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**Bordatxo**  
JATETXEA

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Ariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

A  
D

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK



Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA  
20820 DEBA (GIPUZKOA)

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482  
ase.deba@teleline.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



Pintxoak

Ogitartekoak

Plater Konbinatual

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 618 644 011  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**Ignacio  
Zuloaga  
Institutua  
Eibar**



Ate irekien eguna

**Apirilak 27**

Ordua 18:00

**ARTE BATXILERGOA**

A eta D ereduetan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

206. alea - 2016ko apirila

# AURKIBIDEA

05

## KOLABORAZIOAK

“Deba-Mutriku zubiaren 150. urteurrena”; Errima Frustratuen Kluba.



07

## ALBISTEA

Zubeltzu Bertso Paper Sariketa. Aurtengo sariak banatu dira Agirre jauregian



10

## KIROLAK

Txirrindularitza probak, Anes Arrinda Haur Krosa jokatu da...



13

## KRONIKA

Irteera eta ekimen ezberdinak burutu ditu Gaztelekuak Aste Santuan



14

## B. GAZTEA

Maitasun gutunak San Balentin egunean, inkesta, denbora-pasak...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

**Zuhatzza**  
euskara elkarteak  
deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

### Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbiet, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:** Esti Beristain Vesga

**Azaleko irudia:** Erredakzio taldea

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

**Inprimategia:** Euskalinpri


**Tirada:** 1.400 ale

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazita-koen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Giza eskubideen tren martxan da!



Urtarrilaren 9an milaka pertsonak euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatu genituen Bilboko kaleetan.

Harrezkero, sarekideok, trenaren dinamika jarri dugu martxan eta herrietako esparru ezberdinetatik eman nahi diogu bultzada tren honi; edonork aporta dezake zerbait, lantegi, ikastola, kirol talde, musika talde, auzo elkarte, taberna, norbanako...

Giza eskubideen tren hau aurrera doa, ez du etenik, baina lehen

aipaturiko esparru ezberdinen ekime-  
nez bagoi berriak sortu behar ditugu.

Hilabete luzez aurrera eramango dugun kanpaina honek helburu argi bat dauka, inurri guztien lanari esker aurrera atera ahalko duguna: herri honetako ahalik eta sektore eta pertsona gehien mobilizatzea euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde jarduteko.

Deban, datorren maiatzaren 14an artista eta artisauen bagoi bat osatzera goaz.

ANIMA ZAITEZ ETA  
HARTU ZUK ERE TRENA!

Bidean jartzen dizkiguten trabei aurre egingo diegu, eta hemen salatu nahi dugu, trenaren kanpaina irudikatuz idatzi honen hasieran agertzen den irudia ipini eta egun gutxitara kendu zigutela, herria txukuntzearen izenean egiten dituzten garbiketak aitzakia hartuta. Nola uler daiteke? Norberak pentsa dezala.

*Debako Sare*



**Uzuri**  
optika audio  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA  
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12

## DEBA-MUTRIKU ZUBIAREN 150. URTEURRENA



Ibaia, ibaiak herri arteko muga izan dira askotan. Halaxe izan da gure *errixua* eta Deba ibaia ere ia bere ibilbide guztian; gaur egun Gipuzkoa den lurraldean, gutxi gorabehera, bizi ziren barduliarren eta Mutrikuko Urasanditik hara, gaur egungo Bizkaian, gutxi gorabehera, bizi ziren karistiarren arteko muga, hain zuzen.

**Urasandi** izango litzateke gaur Deba deritzan honetan bizi ziren barduliarrek, ibaiaz beste aldeko, ezker aldeko, karistiarren lurraldeari ematen zioten izena, eskuin aldeko barduliarrenetik bereizteko. **Urazamendik** diote karistiarrek beren lurraldeaz, ibaiaz Mutriku eta Bizkai aldera hedatzen den lurraldeaz, ari direnean.

Ibaiak ibilbide eta harreman-bide ere izan dira; hala izan da Deba ibaia mendeetan zehar. Beronen uretan behera heldu zen Gaztelako ardi-ilea, debarrak Gaztela, Ingalaterra eta Flandesekin harremanetan jarritz.

Debarren eta mutrikuarren arteko komunikabideak, ezkerreko ibaiertzetik eskuinekoa eta alderantziz, jendea eramaten zuten gabarrak izan ziren mendeetan zehar. Lehorrez bi herrien artean ibiltzeko beste bidea Sasiolatik, Astigarrabia eta Kalbario gainetik barrena, Mutrikura doana zen.

Patxi Aldabaldetrecuk hau idatzi zuen, 2001ean, Debako harrizko zubiari buruz:

*1862an, Juan de Unzueta Debako alkate zela, lortu zuen Udalak lehenbiziko harremana Gipuzkoako bideen zuzendariordearekin, Debatik Mutrikurako errepide adarra zein unetatik irekitzea komeni ote zen aztertzeko.*

*Zubi bat eraikitzea erabaki zuten aho batez, Urasandiren iparraldean dagoen Angilaitzatik Hondartzako pasea-bide estaliaren iparraldera. Zubiaren arkuetako batek jasogarria edo biragarria beharko zuen izan, itsasontzien pasabidea ez galarazteko.*

*Geroago, toki egokiagozat eman zuten Kasakanpo eta Artzabal arteko gune bat, Maspetik Loja-berrira bitartean. Azkenik, hirugarren aukera bat hobetsiz, Agirre Jauregia eta Bruia haitzaren artean eraikitzea erabaki zuten.*

*Zubia eta itsasertzean barrena Mutrikura bidea egiteko proiektua 1862ko uztailaren 18an atera zuten enkantean. Zubia 106 m. da luze eskuineko ibaiertzean daukan ia 50 metroko lubeta barne dela. Zabalean, 5,95 metroko galtzada dauka, alboetan zituen 0,40 metroko harlauzako espaloiak barne. Eskuin ertzetik, Deba aldetik, hasita lehenbiziko arkuak eta hirugarrenak 14,6 m. argi dauzka bakoitzak, bigarrenak 14,7 m. eta laugarrenak (jasogarria zenak, Mutriku aldekoak) 8,80 m. argi.*

*Zubi lanak hasi eta, handik hiru urtera, 1866ko maiatzean eman zuen Aldundiak zubiaren atal jasogarria, egitura metalikoa eta bi*

*zatatitan banatua zuena, bakoitza, zubiaren zutoin banaren gaina ardatz zuela, gora eta behera ibil zitekeena, eraikitzeko agindua. Oso denbora gutxian bukatu zuten muntaketa, 1866ko abenduaren 18an, lanak bukatuak zituztelarik, zabaldu ahal izan baitzuten errepide adar osoa. Zubi lana amaitzean, bidaiarientzako gabarra, Urasanditik Zumardiko sarre-rara jendea ekarri eta eraman ibiltzen zena, kendu egin zuten.*

Ikatzaren sarrera desagertu zenean, zubi-zati jasogarria geratu egin zuten eta, handik urte batzuetara, 1951n, desmuntatu. Dirudienez, 1941eko otsailaren 15ean haizeak Agirre-Valmar Jauregian bota zuen eukalipto zuhaitzaren egurra atera zuen itsasontzia pasatzeko jaso zuten azkenengoz zubia.

Zubia XIX. mendearen erdi aldeko arkitektura gipuzkoarraren lan adierazgarrienetakotzat hartua da; garai hartakoa izateko, neurri handikoa. Zubiaren hegoaldeko petrilean, hirugarren arkuaren erdigunean, bada txinga bat ur-bide nagusia eta Deba eta Mutrikuko udalak banatzen dituen marra adierazten dituen. Debako aldean bazuen metrailadore gune txiki bat Bigarren Mundu Gerran eraikia, aliatuen lehorreratzen bat gertatuta ere galarazteko, eta, XX. mende bukaeran, Arrinda pasealekua Deba ibaiaren ertzean eraiki zutenean desagertua.

Aurten, 2016an, 150 urte beteko ditu Deba, Mutriku eta Ondarroaren arteko ibilbidea errazten duen gure harrizko zubiak. Ospatzea merezi duen data da; **ondo etortzen zaigu beti festa egitea**, baita gure auzo-herri Mutriku eta Ondarroarekin konpartitzea ere. Musika-jaiak, dantzaldia, tranpolin-jauzi lehiaketa... Dena dator ondo gure aurrekoek egindako ahalegin bikainarengatik gure poza agertzeko eta itsasertzeko gure auzoengana gehiago hurbiltzeko.

Zubiaren 150. urtebetetze hau bultzagarri izan behar litzaiguke zubia ezker eta eskuin aldeetan zeharkatzen duten hodi itsusgarriak hortik ezkutarazteko ere; baita *errixoaren* ezker alde txukuntzen beste behin saiatzeko ere.

**Hondartza Pasealekuak, gero Calbeton Zumardia bilakatu zenak, 151 urte bete ditu eraikitzeko asmoa betetzen hasi zirenetik, eta, 150 urte lehen zatia, kamio aldeko lau zuhaitz ilare-ri dagokiena, bukatu zutenetik.**

1865eko irailaren hastapenetan, Debako alkate Pedro Olabe zela, egin zuten Udalean Hondartza Pasealekua antolatze-ko aurrekontua. Kaminoaren euts-hormatik 21 metrora, paraleloan, beste horma bat eraiki zuten, itsasoari begira, Pasealeku Estalitik Amilagakoa Ospitalera zihoana.

Jose Luis Albizu- Lukax Dorronsoro



## Errima Frustratuen Kluba

2010eko Donostiako Bertso Egunean Aitor Sarriegik kantatutako bertso jarriak. Berak dio: Mundu hau gero eta globalizatuagoa da eta baita bertako bizimodua ere. Hala, denok dakigun zerbait dela iruditzen zait behin adin batera iristen denean pertsona heldu egiten dela, beste maila batera igotzen dela eta maila horretara igotzeko pausua eman ez dutenei ez die begi berdinez begiratzen eta batzuetan, ukatu eta mespretxatu ere egiten ditu. Pauso hori jadanik eman duen pertsona baten ahotik kantatuko dut eta baten bat detaileren batekin identifikatuta sentitzen bada, pentsatu nire gauzak direla eta kitto, lasai egin lo horregatik.

### Lagun heldu baten gogoetak (Aitor Sarriegi)

#### I

Zilegi bekit garai bateko  
oroitzapenez hastea  
ni ere izan nintzen umea,  
nerabe eta gaztea.  
Baina bizitzak eskatzen digu  
heltzea eta haztea.  
Gizarte hontan gorantz joatea,  
hori da irabaztea!  
Gidoi batean murgildu ginen  
ni ta nire emaztea  
gauza bat soilik ahaztu zitzaigun:  
gidoia geuk idaztea.

#### II

Behin emaztea aipatu eta  
hura zen ezkontza hura!  
Berrogei lagun ermitara ta  
berrehunen bat otordura.  
Trajeatuak barra ertzera  
ta Orfeoia kantura.  
Dena onetik, dena hobetik  
noble berrien modura.  
Aitak ordaintzen zuen artean  
bazkariaren faktura,  
gu Kanadara joan ginen lagun  
langabetuen kontura.

#### III

Baina gerora errutina zen  
gure bizitzaren jabe  
eta haurtxo bat izan genuen  
gure harremanaren alde.  
Amonarekin dagoenean  
gu ere gustura gaude  
pintxoak jan ta kriantza edanez  
berriz nobioen pare  
baina gauetan esnatuz loa  
zapuzten digu halare.  
Ume bat nola etor daiteke  
eskulibururik gabe?

#### IV

Urtean behingo parrandarako  
ez naiz egoten zalantzan  
umea lotan utzi ondoren  
eta emaztea plantzan.  
Despedidako afari latza  
eta gero... txan ta ta txan!  
Kendu eraztuna behatzetik ta  
zeozeren esperantzan  
Pub-en batean bukatzen dugu  
ohartu gabe balantzan  
hogei urteko neskei begira  
berrogeikoekin dantzan.

#### V

Bagoaz zentro komertzialera  
dena ez baita parranda  
azken urtetan astearteko  
gure plana hau izan da.  
Dendarik denda gabiltz haurrari  
lau litxarkeri emanda.  
Dantzatu VISA eroen gisa  
hemen guztia da ganga...  
Azokan ere ibiltzen gara  
tokatzen denean txanda  
hiru letxuga regateatzen  
BMWan joanda.

#### VI

Badut lagun bat, demagun Aitor  
solteroa, zer arraio!  
Izan ez dena bizitzan mailaz  
igotzeko bezain iaio.  
Tarteka zerbait ligatu arren,  
egin arren zenbait saio.  
Gizajoari ohartzera  
arroza pasako zaio...  
Nire bizitza bideratutik  
sarri hurbildu natzaio...  
Nahiz ta urte bat den andrearekin  
larrurik ez dudala jo.

\*\*\*

Azken bertso hau neure ahotik  
ta sortatik apartean  
mespretxatua sentitu bainaiz  
sarri begiradapean.  
Zer gertatzen da ez badut sartu  
nahi horrelako katean?  
Hori gidoi bat besterik ez da  
beste askoren artean...  
Bakoitzak bizi behar duenez  
gustuko duen batean  
zuen bizitzak konpondu arte  
utzi besteok bakean!

## Zubeltzu, VII. Bertso Paper Sariketa

Apirilaren 9an (larunbata) banatu ziren, zazpigarrenez, Zubeltzu bertsolariaren omenez antolatu ohi den bertso-paper sariketako garaileentzako sariak. Ohi den bezala, hiru kategoriatan banatu ziren lanak eta hauek izan ziren, hurrenez hurren, lan sarituen egileak:

### LHko neska-mutilen artean:

1. saria: June Sudupe
2. saria: Amaiur Ponce
3. saria: Danel Aranberri

Bertso bat edo bi kopla osatu behar izan zituzten gaztetxo horiek, "Lo hartu ezinik nago" gaiari helduta.

**DBHko neska-mutilentzako** gaia honako hau zen: "Telebistako saio batera joateko zalantzan nago".

Sailkapena horrela gelditu da:

1. saria: Aloña Salegi
2. saria: Irati Aznal
3. saria: Julia Ron

**Nagusiak** gai librean aritzen dira. Aurtengo edizioan, epaimahaiak Josune Arakistainen "Orratzak" eta Karlos Larrañagaren "Hauxe da hauxe mundu petrala" lanak saritu ditu; bigarren eta hirugarren sariak lortu dituzte, hurrenez hurren.

Agirre jauregian banatu zituzten sariak Debako Udalak eta Zuhatza euskara elkarteak. Sariak banatzearekin batera, egileek euren bertso sortak kantatu zituzten bildutakoan gozamenerako.

Amaitutakoan, bertso-triki-txikiteoa abiatu zen bertatik eta eguna bertso afariarekin amaitu zen. Andoni Egaña eta Oihana Iguaran aritu ziren eta oso giro polita sortu zuten, umoretik bota zituzten bertsoetako asko. 32 lagun bildu ziren Txomin jatetxean.

Sariketara aurkeztutako lan guztiak liburuxka batean bildu eta argitaratu dira. Lanen artean bakar bat hautatu behar genuela eta, June Sudupe gaztetxoak idatzitakoa ekarri nahi izan dugu aldizkarrira. Hemen alboan duzue irakurgai.



### KLIMA ALDAKETA

1. Gabero pentsamendu arrarota kezka buruan sortu klima aldaketa dela eta beldurrak ezin ukatu polo aldean hilabetero eiten da izotza urtu, baietz hemendik gutxira Deba ur azpian hondoratu.

2. Eskolan ikasi genuen eta baditut hainbat galdera baina umeok horrelakoak ulertzeko gai bagera aintzinan Itziar auzokoak zetozen Deba aldera, ta laster joan beharko gera debarrok Itziarrera.

(\*Doinua: Badira hiru aste)  
Egilea: June Sudupe -Izurdea-

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**ITZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

## ESTI BERISTAIN

### “Jarraitzaileak izatea polita da, batez ere lagungarria zarela esaten dizutenean”

**Esti Beristain Vesga Lasturren jaio zen duela 33 urte, eta Deban bizi da 13 urte zituenetik. Martin eta Noraren ama da. Bidaiatzea, irakurtzea, edo larunbat goizean etxetik irten, tren hartu eta Donostian dendetan galtzea gustatzen zaio. Moda kontuetan murgilduta dabil azkenaldian: “Myestile” izeneko gune bat dauka interneten (Instagramen), eta 16.000tik gora jarraitzaile ditu gaur egun.**



Moda eta teknologia berriak uztartzen dituzu. Erraz esaten bada ere, datua ez da nolanhikoa: 16.000tik gora jarraitzaile dituzu Instagram plataforman. Ezagutzen ez dutenentzat, zer da “Myestile”?

Modari buruzko gune bat dela esango nuke. Nire eguneroko bizitzaren zatitxo bat erakusten du, nire janzteko modua. Bertan, nire eguneroko *outfit*-ak erakusten ditut. Ideiak ematen ditut, eta jendeari baliagarria egiten zaio arropa ezberdinak nola konbinatu ikusteko eta abar. *Myestile* ni neu naiz. Hitz joko bat da: “Nire estiloa” ingelesez *my style* izango litzateke; eta nire izena Esti denez... hitz joko egitea pentsatu nuen. Ikusiko bazenute Instagramera igo nuen lehen argazkia... kopa bat ardo zuri Ondargaineko terrazan, *kar-kar-kar...* ez nekien jendeak nire argazkiak ikus zitzakeenik! Tira... nork esango zidan orain 16.000 jarraitzailek ikusiko nindutela eta moda kontuan “postureatzen” hasiko nintzela.

Noiz sortu zenuen “Myestile” gunea?

Duela urtebete. Otsaileko asteburu batean Madrilera joan nintzen, nire ahizparekin. Asteburu oso bat pasa genuen *shopping*-ean, argazkiak ateratzen eta abar... han hasi zen guztia.

Zer sentsazio sortzen dizu hainbeste jarraitzaile izateak?

Orain arte ez nion garrantzi handirik ematen. Azken finean zenbaki bat besterik ez da; igotzen den guztia jaitsi egiten da. Bartzelonan nengoela, jarraitzaile batek ezagutu egin ninduen eta ilusio handia egin zidan. Beste behin Madrilan ere ger-

tatu izan zait, eta Donostiara joaten naizenean gero eta gehiago geratzen naute kaletik. Polita da, batez ere lagungarria zarela esaten dizutenean.

**Badakizu, gutxi gorabehera, zenbat bisitari izaten dituzun egunean?**

Hasieran poliki joan zen jarraitzaileen kontua. Aste batean 20 izaten nituen, baina 1000 jarraitzaile izatera iritsi nintzenean ikusi genuen gero eta azkarrago zihola guztia. Gaur egun, eguneko 100 jarraitzaile izaten ditut, asteburuetan gehiago. Emakumeak dira gehienak, baina gizonezkoak ere ikusten dira. Adinez, denetarik, baina gazteak normalean (13tik 20-30-50 urte bitartera). Jatorria, gehienak espainiarrak, baita kanpokoak ere: amerikarrak, ingelesak, denetik pixka bat. Arraroa da, baina euskaldun gutxi dago; gero eta gehiago, dena den.

**“Inola ere ez nuke jantziko gustuko ez dudan zerbait publikitate egitearren. Nire estiloarekiko fidela naiz”**

**Zenbat denbora eskaintzen diozu honi?**

Hasieran asko. Jendeak asko galdetzen du, mezu pribatuak bidaltzen dizkirate... eta horrek ganean egotea eskatzen zuen.

Egun osoa pasatzen nuen konektatuta; goiz, arratsalde eta gau. Orain goizetan argazki bat igo eta normalean gauera arte ez diot kasu handirik egiten. Lana, familia, etxea... ez zait denbora libre askorik geratzen.

**Instagram plataformaz gain, bestelako sare sozialik erabiltzen duzu?**

Facebooka asko erabiltzen nuen lehen, baina gaur egun apenas. Instagram da gehien erabiltzen dudana, Twitter ez dut erabiltzen, Pinterest batzuetan, eta Youtube gero eta gehiago.

**Erakusten dituzun arropak eta osagarriak zeurek dira? Edo maileguan utziak dira? Alegia, nola funtzionatzen du mundu honek?**

Nireak dira normalean. Armairuan ez dut tokirik izaten!!! *kar-kar*. Mundu honetan gero eta denda gehiagok jotzen dute blogariengana: beraien arropak eman edo uzten dizkiete argazkiak atera eta publikitate egiteko. Nire kasuan ez hainbeste; batzuetan egin izan ditut kolaborazioak, baina gutxitan. Gero eta proposamen gehiago ditut gaur egun, baina nik ez dut inoiz eskatu, ez dut gustuko. Gero eta jende gehiagok eskaintzen die bere burua marka ezagunei, baina nik nahiago dut beraiek eskatzen didatenean egitea, eta beti nire estiloa jarraituz. Inola ere ez nuke jantziko zerbait publikitate egitearren. Nire gustukoa ez baldin bada, ezezkoa ematen dut. Duela bi aste, adibidez, argaltzeko te famatu baten markak idatzi zidan, beraiekin kolaboratzeko interesik ba ote nuen galdetzeko. Beraiek te sobre



batzuk bidaliko zizkidaten eta nik egin behar nuen gauza bakarra zen argazki bat atera eta nire profilean publikatu. Ez dut egin, ez nago ados publizitate mota horrekin, eta are gutxiago osasuna dagoenean jokoan.

### **Beraz, gustuko duzu jarraitzaileen aurrean erakusten duzun guztia?**

Nire profilean ikusten dituzun argazkiak, bertan ikusten den arropa guztia nik aukeratutakoa da beti. Ez nuke inoiz jantziko gustuko ez dudan zerbait, edo nire estilokoa ez dena. Hori nire buruari uko egitea izango litzateke, eta uste dut hortxe dagoela hainbeste jarraitzaile izateko gakoa. Nire estiloarekiko fidela naiz. Publizitatea egitearren edozein arropa janzten duten blogari asko ezagutzen ditut, baina pertsona horiek ez dute euren estiloa guztiz definitzen.

### **Honetaz bizi zara gaur egun? Edo, hori lortu nahiko zenuke etorkizunean?**

Gaur egun ez naiz honetaz bizi eta ez dut uste aukera izango dudarik. Asko lagundu dit, honi esker lan bat lortu ahal izan dut eta oso-oso gustura nago. Denda batean nabil lanean eta hori lortzea urrats handia izan da niretzat. Honetara bakarrik dedikatzen diren pertsona oso gutxi ezagutzen ditut. Gustatuko litzaidake, baina oso zaila da.

### **Modan eta egunean dauden tendentziak, azken joerak ezagutarazten dituzu. Horrek "eguneratuta" egotera behartuko zaitu...**

Zerbait gustuko duzunean, ez zaizu zaila egiten eguneratuta egotea. Atsegin dut moda, beti gustatu izan zait. Gustuko dut modari buruzko aldizkariak irakurtzea, baina nire arazoa denbora falta da! Dena den, sare sozialetan asko ikasten da.

### **Deban bizi zara zu. Nola ikusten duzu bertako jendea moda kontuetan? Zelan definituko zenuke bertokoen estiloa? Badago definitzerik?**

Orokorrean Debako jendeari arropa eroso eramatea gustatzen zaio. Beti dago norbait gero hori bereganatu egiten duena, estilo propioa duenak bere zertzeladak ematen dizkio. Orain oso modan dagoen *look sporty* edo *sport chic* bezala definituko nuke. Gainera, esango nuke haxe bera dela nire estiloa definitzen duena.

### **Inspirazio iturri izan zaitezke milaka lagunentzat. Zuk baduzu inspirazio iturri zehatzen bat?**

Egia esan ez daukat inspirazio iturri konkretu bat. Normalean, denetik pixka bat hartu eta gero nire estilora eramaten saia-



Irudia: Anuska Goenaga Basurto

tzen naiz. Nire gustukoenetako bat Silvia madrildarra da, "El Armario de Silvia" blogekoa; neska horrek ez du izango armairu izugarria, baina oinarrizko bost jantzirekin 10 outfit ezberdin ateratzeko gaitasuna dauka. Oso gustuko ditut baita ere *Meleponym*, *AudreyLombard*, Maria Vizuete, Sasha Simon (*Lolariostyle*-ekoa), BrokeHill eta Jessie Chanes *SeamsForaDesire*-koa.

### **Betidanik gustatu izan zaizu moda, Esti? Eta teknologia berriak? Nolatan sartu zinen mundu honetan?**

Beti izan dut gustuko moda. Denek diote nire izeba batengandik datorkidala. Teknologia ere, ikasten noan neurrian joan zait gustatzen, erraztasun handiak ematen dizkizu. Duela 4 urte hasi nintzen, nire ezkontza eguneko prestaketa guztiak antolatzen hasi nintzenez: nire soinekoa, zapatak, lore-sorta, jatetxea, argazkilaria... sare sozialetan aurkitu nuen guztia.

### **Eta gerora iritsi zen Instagramekoa...**

Bai, duela urtebete. Etxeko ispilu baten aurrean, egunean neraman arropari ateratzen nion argazkia. Hasiera batean horrela hasi nintzen, eta gaur egun kalean ateratzen ditut argazkiak. Norberak egunetik egunera gehiago exijitzen dio bere buruari, gero eta txukunago egin nahi dituzu argazkiak ere, eta jendeak gustuko du hori: estetika zaintzea oso garrantzitsua da. Denak uniforme joan behar du: koloreak, argazkien formatoak eta abar.

### **Baduzu harremanik beste "tendentzia sortzaile" edo moda blogari batzuekin?**

Bai, gero eta gehiago. Harreman handia dut ni bezala dabiltzan beste hainbat blogarirekin. Modarekin zerikusia duten ekitaldiak daudenean, deitu egiten gaituzte eta bertan ezagutzen dugu elkar, moda desfileetan, denda baten inaugurazioan...

### **Mundu honekin zerikusia duen formazioerik jaso duzu?**

Orain arte ez dut aukerarik izan. Asko gustatuko litzaidake eta ez dut baztertzeko baina momentuz ez dut denborarik. *Personal shopper* klase batzuk hartzea gustatuko litzaidake.

### **Udaberrian murgilduta dagoeneko, zeintzuk dira aurtengo tendentzia orokorrak?**

Aurtengo udaran urre kolorea asko ikusiko da, oinetakoetan batez ere. *Boho chic* deritzon estiloa, galtza kanpanak, flekoak, batez ere osagarrietan, txalekoak eta abar. Estilo etnikoa asko eramango da. Pantonek dioenez, aurtengo kolorea kuartzo arrosa izango da, eta gaztelaniaz "azul serenidad" deritzona. Estilo ezberdinak ikusiko ditugu. *Boho chic*, etnikoa, *navy-a* eta urre-koloreko detaileak.

### **Zer ezin da falta armairuan?**

Nire kasuan, arropa "basikoak", hau da, modaz pasatzen ez direnak. Bakeroak, kamiseta zuri liso bat, alkandora zuri bat, blazer edo amerikana beltz bat, txaketa bakeroa, soineko beltz bat eta gona beltz bat. Jantzi gutxi horiekin hainbat look ezberdin lor ditzakezu.

## Amaiak Bat Deba Txirrindulari Taldeak antolatutako Deba Saria jokatuko dute kadeteek



Amaiak Bat Txirrindulari Taldeak apirilean antolatutako azken hitzordua hilaren 23an, larunbata, izango da. Kadeteen arteko XXVIII. Deba Saria jokatuko da, 10:45etik aurrera.

Apirilaren 2an junior mailako txirrindulariak aritu ziren lehian XLIII. Amaiak-Bat Sarian. Proba 70 parte-hartzailek hasi bazuten ere, horietako 36k lortu zuten 86 kilometroko ibilbidea osa-

tzea. Ulma taldeko Xabier Murgiondo nagusitu zen lasterketan; bakarrik iritsi zen helmugara, 2:08:03ko denborarekin. Bigarren postuan Arturo Gravalos sailkatu zen, eta Mikel Arregirentzat izan zen hirugarren postua.

Txirrindulariek apirilean izandako bigarren hitzordua hilaren 10ean izan zen. XXIV. Debako Bira-Zikloturista maila jokatu zen egun horretan eta 128

kilometro egin behar izan zituzten txirrindulariek.

Eguraldia lagun, Foruen plaza-tik 08:00etan abiatu ziren txirrindulariak. Ibilbidea honakoa izaten da: Deba, Mendaro, Elgoibar, Soraluze, Bergara, Oñati, Legazpi, Zumarraga, Azkoitia, Zestoa, Zarautz, Zumaia eta Deba. Udana, Meagas eta Itziarko gaina zeharkatzen ditu birak.

## Igon Mantzizidor zazpigarren postuan sailkatu da Kilimon Trail lasterketan

Apirilaren 10ean Mendaron jokatuako Kilimon Trail mendi lasterketan zazpigarren postuan sailkatu zen Igon Mantzizidor. Bi ordu, zortzi minutu eta 15 segundo behar izan zituen debarrak 23 kilometroko ibilbidea osatzeko.

Mantzizidorrekin batera, beste zortzi debarrek -tarte-an emakumezko batek- eta bi itziartarrek ere parte hartu zuten

lasterketan.

Kilimon Trailen seigarren edizioa izan da aurtengoa eta guztira 208 lagunek lortu dute proba amaitzea. Gizonezkoetan Walter Becerra (Venezuela, 1984) nagusitu zen -1:57:25eko denborarekin- eta Virginia Perez gasteiztarra izan zen azkarrena emakumezkoen artean, 2:36:21eko denborarekin.



**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



English Academy  
**NORTH STREET ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba  
rhorton4@yahoo.es

## XLVIII. Anes Arrinda Haur Krosa, apirilaren 23an

Hilaren 23an, larunbata, jokatuko da haur krosaren aurtengo edizioa. Arratsaldeko 17:00etan emango zaio hasiera, Zumardian.

Aurreko urteetako ildoari jarraituz, 5 urtetik 16 urte bitarteko haur eta gazteek jaso dute bertan parte hartzeko gonbitea. HH eta LHkoen kasuan, adinka bereizita egingo dituzte lasterketak, eta bakoitzak bere zirkuitua izango du. DBHkoen kasuan, ordea, erreleboak egingo dituzte taldean. Iaz bezalaxe, mistoak izango dira lasterketa guztiak, nesken eta mutilen arteko bereizketarik ez egiteko. Hala ere, erorketak edota bestelako arriskuak ekiditeko helburuz, adin bereko korrikalariak talde ezberdinetan banatuko dituzte, ordena alfabetikoa mantenduz.

Krosean parte hartzen duten guztien artean hainbat sari zozketatuko dira aurten ere: museoetarako sarrerak, loteak, kirol saio desberdinetarako sarrerak... Era berean, lasterketa amaitzean, guztiak izango dute mokadutxo bat jateko aukera eta parte-hartzaile bakoitzak lasterketako kideekin aterako argazki bat izango du oroigarri gisa (argazkia eskolaren



Iazko edizioko irudia.

bitartez helaraziko zaie gero ikasleei).

Informazio gehiagorako: <http://anesarrindahaurkrossa.weebly.com> atari digitala edo [debakrossa@hotmail.com](mailto:debakrossa@hotmail.com) posta elektronikoa.

### Areto Bizikleta Birtualaren zerbitzua udal kiroldegian

Debako Udal Kiroldegia Areto Bizikleta Birtualaren zerbitzu berria hasiko da eskaintzen. Alegia, aurrerantzean, erabiltzaileek bideo baten bitartez spinning saio birtualez gozatzeko aukera izango dute eta spinning aretoa saio presentzialen ordutegitik kanpo ere erabili ahal izango da.

Musikaren laguntzarekin eta erritmo aldaketak eginenez, Areto Bizikleta Birtualeko saio batek "ibilbide" antzatz egiteko erronkan jartzen du kirolaria. Zerbitzu hau saio hauek adituak diren irakasleen entrenamendu metodologian oinarritzen da. Hortaz, astelehen eta asteazkenetan (saio presentzialak eskaintzen diren egunetan) ez ezik, asteko gainontzeko egunetan ere spinning saioak eskainiko ditu Kiroldegiak; kasu honetan, bideo-saio birtualen bitartez.

Aurrez aurreko spinning saioetako erabiltzaileek eta gutxienez bi ekintza zuzenduetako erabiltzaileek doan izango dituzte klase hauek. Honetaz gain, Kiroldegiak gogorarazi nahi du spinning areto ondoan dauden takilen erabilpen per-



sonal eta eskusiboa egiteko aukera dagoela, harreraren takilaren zenbakia emanez.

Ordutegia kontsultatzeko edo informazio gehiagorako, sartu [www.deba.eus](http://www.deba.eus) atarian edo deitu kiroldegira (943 19 22 62).

Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

## EH Sukarraren bideoklip berria Aitor Oñederrak sortu du

Azken asteotan Aitor Oñederraren lan berri baten albistea jaso dugu. EH Sukarra musika taldearen "Izarren bila" abestiaren bideoklip berriaren egilea da debarra. "Azken gezia" diskako singlea eta bideoklipa apirilaren hasieran aurkeztu du talde eibartarrak. Musika Mikel Gorosabel "Norton"-ena da, hitzak Asier Serranok jarri dizkio eta Oñederrak sortu du bideoklipa, animaziozkoa. Interneten ikusgai dago bideoklipa, youtuben esaterako.

Bien bitartean, Oñederraren "I Said I Would Never Talk About Politics" animaziozko laburmetraiak ere bere bidea egiten jarraitzen du. Dagoeneko jakina da lan horrek hainbat sari jaso dituela eta, besteak beste, Malagako zine jaialdian ere proiektatu dute apirilaren amaieran.

## Abian dago XV. Plazatik Gaztetxera bertsolari gazteen txapelketa

Apirilaren 15ean abiatu da Plazatik Gaztetxera txapelketa. Maiatzaren 21ean izango da finala, Mutrikun egingo den Plazatik Gaztetxera Egunean, baina aurrez sei saio egingo dira -Eibar, Ondarroa, Soraluze, Bergara, Deba eta Markina-Xemeinen-.

Proiektuaren helburua Euskal Herriko bertsolari gazteei kantatzeko aukera ematea da eta, era berean, bertsoa gazteengana gerturaztea, horretarako tresna gisa gaztetxeak erabiliz. Aurtengo edizioa hainbat berrikuntzekin dator. "Eredu formal lehiakorraren planteamendua alde batera" utzi nahian, adibidez, bertso bakoitzari epaile talde batek puntuazio jakin bat eman beharrez, publikoko talde aukeratu batek (5-7 pertsonaz osatua) gehien iritsi den edo transmititu duen bikotea aukeratu du, "matematiketan sartu barik". Ariketa berriak propo-



satuko dira, gainera, saioetan.

Bikotea hartuko dute parte bertsolariak, 16 bertso-bikote osatuz. Finalerdietara lau bertso-bikote sailkatuko dira eta finalean bi izango dira. Saioak gaueko 22:30ean hasiko dira.

Debara apirilaren 30ean iritsiko da txapelketa. Finalerdia jokatu da: Eibarko eta Soralezko hautatuak, Ondarroako eta Bergarako entzuleek hautatutako aurka.

## Herri-bideen inbentarioa maiatzaren 9a arte egongo da jendaurrean ikusgai


Udalerriko dominio publikodun landa-bideen inbentarioa behin-behinean onartu zuen Debako Udalak urtarrilean eta erakusketa publikoa zabalik du orain, herritarrek dokumentua aztertu eta alegazioak edota kontsultak egiteko aukera izan dezaten. Sendo enpresak egin du txostena eta bertan bigarren mailako bideak jaso dira; 2013an onartu zen asfaltatutako bideen inbentarioarekin batera Debako bideen sarea osatzera dator.

Landa-bideen titularitatea eta erabilera "interes bereziko gaia" dela uste du Udalak. Auzi horrek hainbat ikuspegi biltzen ditu, eta batzuetan kontrajarriak izan ohi dira: "baserri eta nekazaritza ustiakuntzetara iristeko bideena, baso ustiakuntzetara iristekoena, hiritarrak naturara edo mendira hurbiltzeko bideena, zenbait kirol praktikan jartzeko bideena eta gure historia eta lurraldea interpretatzeko ondasun historikoaren elementu garrantzitsuak diren bideena". Ikuspegi horiek

guztiek "zilegi, baina desberdinak, eta batzuetan kontrajarriak diren interesei" erantzuten dietela kontuan hartuta, eta horrek sor ditzakeen arazoak gogorarazita, Udalak nabarmendu du orain ikusgai jarri duen inbentarioaren helburua hau dela: "Aspalditik konpondu gabeko gatazkak eta ezadostasunak argitzeko tresna izatea. Froga argigarrien bitartez, inbentarioa lagungarria izatea nahi dugu".

Plano batean irudikatu dira bide guztiak, eta bakoitzeko fitxa bat landu da: bidearen izena, luzera eta ezaugarriak gain, bakoitzaren izaera publikoa justifikatzen duen informazioa ere jaso dute fitxetan.

Datorren maiatzaren 9a arte egongo da jendaurrean jarrita herri-bideen inbentarioa. Txostenaren inguruko alegazioak eta kontsultak egiteko epea amaitzean, ekarpen horiek aztertu eta dokumentua behin betiko onartuko du udalbatzak.



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Empresa Registrada Nº 2/051049  
NIVEL 2

## Irteerak, sukaldaritza saioak... Gaztelekuko kideak mugimenduan!



Etengabeko mugimendua izan dugu aurtengo Aste Santuan. Gazteek bi asteko oporraldiak izan dituztenez, adin bakoitze-ko gazteekin irteera bat egin dugu eta gainontzeko egunetan Gaztelekua zabalik egon da erabiltzaile guztientzat.

Burutu ditugun ekintza berezien artean, Gaztelekuan gaupasa, Hontza Extrem abentura parkera egin-dako irteera eta Zumaia-Deba ibilaldia nabarmenduko genituzke. Ia belaunaldi osoek parte hartu dute, oso ondo pasa dute eta ekintza berriak burutzeko irrikaz daude.


Gaztelekua irekita izan dugun egunetan, gazteekin momentuan adostutako hainbat ekintza egin ditugu. Horien

artean, sukaldaritzako bi saioak izan dira aipagarrienak: alde batetik, txurroak prestatu genituen txokolate beroarekin, eta, bestetik, patata tortilla egin genuen, guztion artean merienda ederrak eginez.

Aste Santua amaitu den arren, udaberri honetan hainbat ekintza antolatzeko asmoa dugu, pala eta badminton txapelketak edota txori habien tailerra, besteak beste.

Udara ere ate joka dugu eta izango duzue gure ekintza eta mugimenduen berri. Laster arte!!

*Debako Gaztelekuko Hezitzaileak*



2016ko apirila  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrea Sortua

# BERRIKETAN GAZTEA

## San Balentin eguneko maitasun gutunak

Urtero bezala, aurten ere Mendata institutuan San Balentin eguna ospatu zen otsailaren 14an. Maila bakoitzean, maitasunari buruzko lan desberdinak egin ziren. Lehenengo mailan, ikasle bakoitzak euskarazko olerki bat egin zuen, bigarrenean gaztelaniazko olerki bat, hirugarrenean gaztelaniazko gutun bat eta laugarren mailan euskarazko gutun bat.

Lan guztiak institutuko lehenengo solairuko hormetan itsatsi ziren. Horrela, ikasleek, gutunak irakurri ondoren, liburutegian zeuden kaxetan gehien gustatu zitzaizen lanaren alde bozkatu zuten.

Astebeteko epea izan zuten botoa emateko.



*Irabazleak, taldeko argazkian.*

Aste hori pasa ondoren, liburutegian sari banaketa egin zen, otsailaren 25ean hain zuzen. Maila bakoitzean bi sari egon ziren: bata ikasleek bozkatutakoa, eta bestea batzorde batek –hiru irakaslek eta 4. mailako 2 ikaslek osatua– emandakoa.

Irabazleak ondorengoak izan ziren:

• Lehenengo mailan: June

Rodriguez eta Lorena Ladera

• Bigarrenen: Uxue Egaña eta Arantxa Odriozola

• Hirugarrenean: Ane Ladera eta Ibai Salegi

• Laugarren mailan: Haizea Egaña (irabazle bat bakarrik egon zen, ikasleen artean ez zuelako ia inork botoa eman).

## 4. DBHko ikasleak, Jacara eta Bartzelonara ikas-bidaian

4. DBHko ikasleak martxoaren 14tik 18ra bitartean joan ziren Bartzelona eta Jaca ezagutzera. Bost eguneko bidaia egin zuten eta egun horietan ekintza desberdinak egin zituzten, hala nola raftinga, eskalada, paintballa edota ibilbide turistikoa.

Martxoaren 14an, astelehena, Debatik goizeko 7:30ean irten eta eguerdi aldera iritsi ziren Jacara. Hotelean maletak utzi eta,



arratsaldean, rafting eta paintballa egitera joan ziren. Hurrengo goizean tirolina, rappel eta eskalada egin zuten. Martxoaren 15ean, arratsaldean, Bartzelonara abiatu

ziren eta biharamunean, martxoaren 16an, tour gidatua egin zuten hirian. Bazkaldu ondoren, berriz, zora joan ziren. Ostegun goizean museo bat ikusi zuten eta arratsaldean denbora librean eduki zuten Bartzelona ezagutzeko. Ostiralean, azken eguna zela eta, Portaventuran izan ziren egun osoan eta iluntzean itzuli ziren Debara. Bost egun horietan oso gustura ibili ziren eta oso ondo pasa zuten.

# ELKARRIZKETA

## **Xabier Treku: "Bodyboarda hobbya da momentuz, baina denborarekin ikusiko da"**



**Oraingo honetan, gure institutuko Xabi Treku bodyboardlariari egin diogu elkarrizketa. Orain arte izan duen kirol ibilbideaz zertxobait gehiago jakiteko aukera izan dugu.**

### **Noiz hasi zinen bodyboard egiten?**

Duela hiru urte. Hamaika urterekin hasi nintzen kirol honetan, jaunartzean oparitu zidaten ohol batekin.

### **Zergatik edo notalan hasi zinen honetan?**

Herrian hondartza dagoelako eta gustuko nuelako.

### **Beste kirolen bat egiten al duzu?**

Ez, baina egunero egoten naiz uretan.

### **Baduzu txapelketetan parte hartzeko ohiturarik?**

Bai, Gipuzkoako txapelketan aritu izan naiz eta martxoaren 12an beste txapelketa batean ere parte hartu nuen.

### **Irabazi al duzu sekula txapelketarik?**

Ez, Gipuzkoakoan laugarren geratu nintzen.

### **Beste hondartza edo tokiren batera joan al zara bodyboard egitera?**

Bai, Frantziara eta inguruko herrietara ere joaten naiz.

### **Zuretzat zer da bodyboarda, hobby bat ala zerbait gehiago?**

Momentuz hobbya da, baina denborarekin ikusiko dut.

### **Norekin joaten zara uretara?**

Lagun batzuekin edo bodyboard egiten dutenekin eta uretan egoten direnekin, lagun gehienak ez direlako bodyboardean aritzen.

### **Nor da zure bodyboardlari gustukuena? Zergatik?**

Alex Uranga, Zumaikoa delako eta gainera munduko onenen artean dagoelako.

## AROTZ-ENEA

Hilabete honetan, bigarren mailakoei joan gatzazkie Arotz-Eneako egonaldia buruzko galdera batzuk egitera. Arotz-Eneara joan dira hiru egun pasatzera. Eguraldia ez dute beraien alde izan, baina gehienek oso ondo pasatu dute. Hona hemen galdera-erantzunak:

- 1.- Zer nolako esperientzia izan da?
- 2.- Egindako ekintzetatik zein gustatu zaizu gehien?
- 3.- Elurretan ibiltzeko aukera izan zenuten? Zer egin zenuten?
- 4.- Zer nolakoak izan dira bertako zerbitzuak?
- 5.- Gomendatuko al zenioke norbaiti?



**Josu Salegi**

- 1.- Eskasa iruditu zait, itsasoa ez zelako ikusten bertatik.
- 2.- Pasabidean lo egin nuenean, portaera desegokia zela eta.
- 3.- Zorionez, elur asko zegoen eta bolak botatzen ondo pasa nuen.
- 4.- Komunak nahiko eskasak ziren, bestela oso ondo.
- 5.- Egia esan ez, ez zitzaidalako gehiegi gustatu.



**Jone Gomez**

- 1.- Ederra, ondo pasatu dudalako.
- 2.- Egagropila izeneko jarduera. Animalien digestio aparatuan sortutako hondakinak ahotik ateratzean eta lehortzean, hauek ireki eta bertan zegoena aztertzen genuen.
- 3.- Bai, irakasleei elurra bota nien.
- 4.- Orokorrean onak, batez ere janaria. Dutzak ez ziren ganorazkoak.
- 5.- Bai, oso ondo pasa nuelako.



**Malen Arakistain**

- 1.- Oso polita izan da, lagunuen arteko harremanak estutu baititugu.
- 2.- Egagropila izeneko jarduera.
- 3.- Bai, gure artean plakaketak egin genituen elurretan.
- 4.- Oso onak orokorrean, baina dutzak ez zeuden egoera onenean.
- 5.- Bai, esperientzia dibertigarria eta ahaztezina izan delako.



**Endika Ruiz**

- 1.- Ez da izan bereziki ona.
- 2.- Ez zait bakar bat ere gustatu.
- 3.- Bai, elur piloten guda egin genuen.
- 4.- Zerbitzuak eskasak ziren: dutxez gain, oheak oso txikiak eta estuak ziren, ez nintzen bertan kabitzen.
- 5.- Ez, ez zaidalako batere gustatu.



**Arantxa Odriozola**

- 1.- Esperientzia oso polita, denbora libre asko genuelako.
- 2.- Egagropila.
- 3.- Bai, elurra bota genion elkarri, plakaketak egin genituen...
- 4.- Zerbitzuak onak izan ziren, dutzak izan ezik.
- 5.- Bai, oso ondo pasatzen delako.



**Asier Feijoo**

- 1.- Esperientzia oso txarra.
- 2.- Ez zait ekintza bakar bat gustatu.
- 3.- Bai, elur guda egin genuen.
- 4.- Oso zerbitzu txarrak: komunak puskatuta, dutzako urak ez zuen indarririk...
- 5.- Ez, zerbitzuengatik.



**Enara Mendoza**

- 1.- Esperientzia normala izan da.
- 2.- Ukendua, krema bat egitea zen.
- 3.- Bai, elkarri elurra bota genion.
- 4.- Zerbitzu onak iruditu zitzaizkidan, batez ere janaria oso goxoa baitzegoen, eta irakasleak ere oso jatorrak ziren.
- 5.- Bai, ondo pasatzen delako.




**Jon Txurruka**

- 1.- Berezia eta polita iruditu zait.
- 2.- Denbora libre.
- 3.- Bai, irakasleei elurra bota genien.
- 4.- Ona, irakasleak onenak ziren eta oso ondo pasa genuen beraiekin.
- 5.- Bai, ondo pasa nuelako eta zerbitzuengatik.



# DENBORA-PASAK

## Aurkitu bederatzi ezberdintasunak:



## ASMAKIZUNAK

\* Hogeita lau anai-arreba, batzuk egunez, besteak gaez, hogeitalau anai-arreba, jarraian nahitaez.

\* Tiro eginda zauririk ez; sudurra, berri, minez.


## HIEROGLIFIKOAK

a) Zer puskatu dut?	b/d) Sekulakoa da bere...	e) Afrikako herrialdea

\* Zotz txikia gainean du gurpila, igarkizun honetan badago pila.

## TXISTEA

\*Txinatar batek zera esan zion gizon bati:  
 -Aizu, kotxe hori berria al da?  
 -Bai, alfa bat da.  
 -Lomeo?  
 -Pixa egiten badiozu, belarrondoko bat emango dizut!



**ERANTZUNAK:**

**Asmakizunak:**  
 -Orduak  
 -Puzkera  
 -Lurdirpena  
 -Bizitasuna  
 -Angola

### laguntzaileak:



### babesleak:



### prentsa tailerra 2015-2016

Ane Amutxastegi  
 Elene Arratibel  
 Ane Ladera  
 Lara Egaña  
 Haritz Alberdi  
 Julen Ayastuy

Jon Muñoz  
 Naia Zabala  
 Ane Larrañaga  
 Iraide Udabe  
 Idrissa Sene  
 Jon Osa

Koordinatzailea: Tomas Ramos

# AGENDA

## APIRILAK 23, LARUNBATA

-10:45. **XXVIII. Deba Saria txirringularitza** lasterketa, kadeteen maila.

-13:00. **Txistularien kontzertua**, udaletxeko arkupeetan.

-17:00. **Anes Arrinda XLVIII. Haur Krosa**, zumardian.

## APIRILAK 24, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak**, Agirre jauregiko ispiluen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/ 18:00etan: 7-12 urte bitartekoentzat.

## APIRILAK 29, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoek eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

## APIRILAK 30, LARUNBATA

-13:00. **Dantzaren Nazioarteko Eguna** dela eta, Kulunkak antolatutako saioa egingo da portuko pasealekuan.

-22:30. **Plazatik Gaztetxera Bertsolari Gazteen Txapelketa**, Debako Gaztetxean (finalerdia).

-**64. Gau Ibilaldia Itziarrera**. Ondarretatik (Donostia) abiatuko da, iluntzeko 20:00etan. (Informazio gehiagorako: <http://www.marchaitziar.com/Actu.html>).

## MAIATZAK 1, IGANDEA

-Langileen Nazioarteko Eguna.

## MAIATZAK 7, LARUNBATA

-**Erromeria Eguna Itziarren**. Ikus egitarau osoa aldameneko zutabeen.

## MAIATZAK 13-15

-**Debarren Eguna**. Jai Batzordeak egitarau berezia antolatu du astebururako: musika, danborrada, entzierroa eta sokamuturra, erraldioen konpartsen desfilea... Ohiko bideetatik ezagutaraziko da programa osoa.

## MAIATZAK 14, LARUNBATA

-17:00. **Gipuzkoako XLVII. Hiru-Txirlo Bolo Txapelketaren** baitan antolatutako jaurtialdia egingo da Lasturko bolatokian.

## MAIATZAK 20-29

-**XXX. Antzerki Astea**, Goaz Antzerki Taldearen eskutik. Ikuskizun ezberdinez gozatzeko aukera izango da.

### Erromeria Eguna Itziarren

-Maiatzaren 7an (larunbata) Erromeria Eguna egingo da Itziarren, Andutz Itziarko Kultur Taldeak beste hainbat talde eta erakunderen laguntzarekin antolatuta.

11:00etan abiatuko da egitaraua, kalejira batekin, eta gerora mokadua hartzeko aukera, Itziarko eta Bianako dantzariak, Kalez Kale... arituko dira. Herri bazkaria egingo da 14:30ean frontoian eta arratsaldean eta gauean erromeriaz gozatzeko aukera izango da. Musikari eta trikitilari uga-

rik parte hartuko dute hitzorduan: Hernaniko fanfarrea, albokari eta dultzaineroak, Xabi Solano eta lagunak, Ostolaza eta Narbaiza...



### Kolorez Blai Udalekuak

-Aurtengo Kolorez Blai euskal udalekuak Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldeak antolatuko ditu. Uztailaren 4tik 29a bitarte burutuko dira (bi txandetan) eta izen-ematea maiatzaren 9tik 20ra izango da. Epe motzean zabalduko da informazioa, ohiko bideetatik.



### Ikastaroak

-**KZguneak** arratsaldeko orduetgia izango du maiatzean. Hainbat ikastaro eskainiko dira: oinarrizko interneta, sare sozialak... Informazio gehiagorako: [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus) ataria edo 943 02 36 29 telefonoa.

-**Debako Arte Eskolak** Litografiaren Hastapen Ikastaroak eskainiko ditu maiatzaren 30etik ekainaren 3ra, eta ekainaren 6tik 10era. Izen-ematea: maiatzaren 20ra arte. Informazioa: 943 19 18 04.

### Bisita gidatuak Geoparkean

-Euskal Kostaldeko Geoparkeak abian ditu bisita gidatuak: Flyscharen Ibilbidea, Zumaia-Deba-Zumaia (Flyscharen labarretatik itsasontziz),

Debatik abiatzen den Flysch Beltza... Informazioa eta izen-emateak: [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) atarian edo Debako Turismo Bulegoan (943 19 24 52).

### ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **apirilak 29, 30.**  
**maiatzak 1, 9, 10, 11, 12.**

Burgoa Zuazo: **apirilak 25, 26, 27, 28.**  
**maiatzak 13, 14, 15.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

### DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGEOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: apirilak 30 / maiatzak 7

BURGEOA ZUAZO: apirilak 23  
maiatzak 14

9:30 - 13:30





**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



Jari zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatza**

943 191 383  
[berriketan@zuhatza.com](http://berriketan@zuhatza.com)



**Hazirik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telef.: 943 02 99 63  
e-mail: [hazirik@gmail.com](mailto:hazirik@gmail.com)



**kutxa**



kutxabank



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95




**URDAITEGIA**  
**AITTOLA**  
**HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**



**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitsuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak



**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940  
[sagarmina@sagarmina.com](mailto:sagarmina@sagarmina.com)  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)



**haizea**  
Estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik



**ISABEL**  
**FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behe - 20820 DEBA  
943 029 186

**JAZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA DISTRIBUZIOA  
1975etik zuekin!



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**Calbeton**

**JATETXEA**

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**L.A.**

**LARRAMENDI**  
**ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786  
Mobila: 607453357  
e-mail: [larranaiak@gmail.com](mailto:larranaiak@gmail.com)

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**sasoiiko**

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknika (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresioak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 [sasoiiko@hotmail.com](mailto:sasoiiko@hotmail.com)

# Elgoibar Arreiturre BHI 2016-2017 ikasturtea



Elgoibar Arreiturre BHI  
Arregitorre 2  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: 013431aa@hezkuniza.net  
www.elgoibarbhi.eus

**BATXILERREKO ESKAINTZA**

**GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK  
ZIENTZIAK  
ARTEA (Musikala)**

**AURREMATRIKULAKO DATAK:  
MAIATZAREN 27IK 12RA**



**GURASOENTZAT BILERA IREKIA:**

**APIRILAREN 26AN, ARRATSALDEKO 18:00ETAN MENDATA IKASTETXEAN**

AZKEN



ER  
Enpresen  
Asociación  
de Euzkadi  
2007-2018

AKALITATEA  
HEZKUNTZAN



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Euskadi  
2 0 0 4